

**I. ATALA****BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO FORU ADMINISTRAZIOA****Foru Enpresak eta Foru Erakundeak****Bizkaiko Gizarte Urgazpenerako Foru Erakundea (GUFÉ)****2019ko zonifikazioa: GUFEn indarrean dauden aldi baterako Laneko Poltsen osaerari dagokionez aukeratzeko eskubidea baliatzeko epea zabaltzea.**

2019ko azaroaren 8ko Ebazpenaren bidez, GUFÉko gerenteak hau xedatu du:

«*Lehenengoa*: Zona aukeratzeko epe bat zabaltzea, azaroaren 18tik abenduaren 8ra, egun biak barne, GUFÉren lan-eskaintza publikoetan sortutako lan-poltsak osatzen dituzten pertsonen lanerako zona aukeratzeko eskubidea baliatu dezaten. Telematikoki egin beharko dute, GUFÉren web-orrian (www.ifas.bizkaia.eus), “Lan-poltsak” atalean, “Zonifikazioa 2019” loturan.

Gizarte langileen kategorian, ez dute orain aukeratu behar zona, egiten ari den hautaketa-prozesua amaitzen denean sortzen den lan-poltsa osatu ondoren ezartzen den epean baizik.

Erizainen kategorian, berriz, 2006ko lan-eskaintza publikoa eta gero eraturako lan-poltsan dauden pertsonen aukeraturako dute zona. Orain egiten ari den hautaketa-prozesuan parte hartu dutenek ez dute orain aukeratu behar zona; aurrerago zehaztuko da aukera egiteko epea, gizarte-langileen kasuan bezala.

Interesatuta dauden pertsonen 2018an onartutako zonen banaketa berriaren arabera baliatu ahal izango dute aukera-eskubidea. Eskubide hori orain baliatzen ez duten pertsonen kasuan, 2018ko azken zonifikazioan adierazitako aukerak mantenduko dira. Orduan beren aukerak adierazi ez zituztenen kasuan, ez dute galduko eskubidea, baina plaza hutsak betetzeko egon daitezkeen beharrezanetarako lan-poltsa orokor batean baino ezin izango dira sartu, eta beti Pertsonak Zuzentzeko Departamentuko buruak ezartzen duen eran.

(...)

Bilbon, 2019ko azaroaren 8an.—Gerentea, Nerea Urien Azpitarte